

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUD**DESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE**

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 3 milioi euroko diru- laguntzak emango ditu 74 nekazari eta abeltzain gazteren instalazio berrietarako

*Profesional horiek 7 milioi euro baino gehiagoko inbertsioak burutzea aurreikusi dute*

Miércoles, 04 de abril de 2012

Nafarroako Gobernuak, gaurko saioan, 3.083.575 euro ematea onartu du 74 nekazari eta abeltzain berriri, nekazari gazteen lehen instalaziorako laguntza gisa. Profesional horiek 7,1 milioi euro baino gehiagoko inbertsioak burutzea aurreikusi dute.

Zehazki, 40 urte baino gutxiagoko 74 nekazari eta abeltzain dira. Horietatik 46 gizonezkoak dira eta 28 emakumezkoak. Gehienek (69) nagusiki nekazari izanik hasi dute jarduera, hau da, nekazaritza haien jarduera ekonomiko nagusia da.

Nagusiki nekazari direnek 40.000 euroko hobari bakarra jasotzen dute eta 24.000 eurokoa nagusiki nekazariak ez direnek. Horrez gain, Nafarroako Gobernuak nagusiki nekazari direnei 40.000 eurorainoko laguntza ematen die eskatzaile bakoitzaren inbertsioetako interesak ordaintzeko.

Deialdi honetan, espediente bakoitzeko batez besteko inbertsioa 96.094 eurokoa izan da eta Foru Gobernuaren batez besteko laguntza 41.670 eurokoa..

### Ustiategiaren xehetasunak

74 onuradunetatik 43k nekazaritzako jarduerak soilik burutuko dituzte eta 25ek abeltzaintzakoak soilik. Beste 6k laborantza eta abeltzaintzarako ustiategi mistoak sortu dituzte. Nekazaritzarako bakarrik direnei dagokienez, laguntza horien bidez, Nafarroako Gobernuak barazkigintzako 19 jarduera, laborantza handien 10 (batez ere zerealen laborantza zabalak), mahasgintzako 4, frutagintzako 1 eta beste laborantza batzuen 9 (barazkigintza eta frutagintza bateratuta, adibidez). 22 abeltzainetatik 14 ardien ustiategiez arduratuko dira, 5 haragitarako behin-azienden ustiategiez, 3 esnetarako behiez eta 3 hegaztien ustiategiez.



25 gaztek lehenengo instalazioko abeltzaintzako jarduerak bultzatzen dituzte

Hauek dira herri bakoitzeko onuradunak: Abartzuza nekazari gazte 1; Ablitas 2; Allin 1; Amekoabarrena 2; Anue 1; Artaxoa 4; Basaburua 2; Baztan 7; Beire 1; Caparroso 1; Cintruénigo 1; Corella 1; Cortes 2; Ergoiena 1; Erro 2; Etxarri Aranatz 1; Ezkabarte 2; Ezporogi 3; Funes 1; Galoze 1; Hiriberri 1; Txulapain 1; Lapoblación 1; Larraga 1; Lodosa 1; Los Arcos 1; Irunberri 1; Milagro 3; Azkoien 2; Pitillas 4; Ribaforada 1; Erromantzatua 1; San Adrián 2; San Martin Unx 2; Sartaguda 2; Tafalla 3; Tudela 1; Ultzama 1; Urrotz 3; Valtierra 4; eta Alesbes 1.

Nekazari gazteen instalazioentzako laguntzak 2007-2013ko Nafarroako Landa Garapenerako Programaren barruan eman dira. 500 milioi eurokoak dira eta horietatik 385 milioi euro Nafarroako Gobernuak eman ditu eta 115 milioi euro Europar Batasunak. Zenbateko horiek Foru Gobernuak belaunaldien txandakatzea sustatzeko eta nekazaritzako sektorea profesionalizatzeko helburuak betetzeko dira. Gobernuaren erabakiaren arabera, 1.666.809,47 euro 2012ko aurrekontuaren kargura ordainduko dira eta 1.416.765,77 euro 2014ko aurrekontuaren kargura.